

artikulu nabarmenak  
artículos destacados

abuztua / agosto



CARO SAMADA, María Carmen. [Información y verdad en el uso de las redes sociales por parte de adolescentes](#). *Teoría de la educación*. Malagako Unibertsitatea, Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila, 2015, 27. liburukia, 1. zk., 187-199. or. ISSN 1130-3743

Interneten izenpetu gabeko egiletzak gezurri hedapena ematen dio. Horrelakoak berri faltsuak zabaltzen dituzten egunkariak edo akaso inoiz desagertuko ez diren soka luzeko gezur-ziriak (nahiz eta halakoak sortzeak damu zantzurik ez eragin egileagan, benetako bizitzan ez bezala).

Sare sozialen profil malgu eta aldagarriek, nortasuna-edo ezkutatzeko zeharo edo zati batean faltsuak direnek, edozelako elkarerragina sortzeko aukera ematen dute. Sarean jarduteko izaera erabat benetakoa ez den hori, nahiz eta esperimatzeko baliagarria izan, gu ez garenaren adierazgarri ere bada. Sortutako molde digital hori, positiboa zein negatiboa izan, ahazten zaila da oso eta izan dezakeen iraupena luzea. Hortaz, internet xede horretan erabiltzeko moduez jakitun egin behar ditugu gazteak.



MARCELINO MERCEDES, Geogina Victoria. [Migración de los jóvenes españoles en redes sociales, de Tuenti a Facebook y de Facebook a Instagram](#). *La segunda migración* Icono 14. *Revista de Comunicación y Tecnologías Emergentes*. Madril: Icono 14, 2015, 13. liburukia, 2. zk., 48-72. or. ISSN 1697-8293

Facebook baino lehenagoko sare soziala da Tuenti. Eta 2011ra arte gertuko lagunen arteko harremanetarako erabili izan zen; ordua arte, Facebook profesionalagotzat jotzen da eta egokiagoa atzeritarrekin erlazionatzeko. Sasoi batean biak erabili zituzten gazteek, eta gerora, diseinuaren aldaketak, erabiltzaile gazteagoek bezero nagusi bihurtzeak eta berrikuntzarik ez eskaintzeak Tuentiren gainbehera dakarte. Gazteak interesgarriago ikusten du Facebook. Bertan edozelako adin eta ezaugarri dituzten erabiltzaileak elkartzten dira. Gaur egun, berriz, Facebook albo batera lagatzen hasi dira, eta beste sare batzuen alde egiten: Instagramek, kasu, argazkiak partekatzeko aukera emateaz gainera, gazteen idolo direnak, markak eta bestelakoak ere biltzen ditu. Honezkerok ez dute Facebook-en horrenbesteko askatasuna sentitzen, nahiz eta ez dioten erabat bizkar eman, osagarritzat daukatelako.

JJIMÉNEZ MORALES, María Isabel eta Esther LÓPEZ ZAFRA. [Impacto de la inteligencia emocional percibida, actitudes sociales y expectativas del profesor en el rendimiento académico](#). *Revista electrónica de Investigación Psicoeducativa y psicopedagogía*. Almeriako Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, azaro-martxoa, 2013, 11. liburukia, 29. zk., 75-98. or. ISSN 1696-2095

Adimen emozionalaren esparruan eta hezkuntza-psikologian berorren erabilerak erakutsitako emaitza enpirikoen berri dakar azterlan honek. Ikerketak jarrera prosozialaren eta emaitza akademikoen harremana jaso nahi du, tartean gizarte lehia eta honek irakasleagan sortzen dituen aurreikuspenak. Proposatutako hipotesien arabera giza jarrera eta emaitza akademikoen artean bada lotura zuzenik, bai eta nor bere adimen emozionalaz duen pertzepzio eta jarrera sozialen artean ere. Ez, ordea, adimen emozionala eta emaitza akademikoen artean. Dena den, kontuan hartzekoa da emaitza hobekak dituztela emozioei kasu egiten dieten ikasleek. Bestalde, irakasleengan aurreikuspen handiagoak sortzen dituzten ikasleek emaitza hobekak lortzen omen dituzte.



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Gazteria eta Kirol Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Dirección de Juventud y Deportes